2024AN "LANGUAGES LANEAN" KONGRESUA ANTOLATZEKO LANAK LOTEKA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da 2024ko urtarrilean Eusko Jaurlaritzak Bilbon antolatu nahi duen "Languages lanean. Hizkuntza kudeaketaren erronkak jarduera ekonomikoan" kongresua antolatzeko lanak loteka kontratatzea.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak "Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana" onartu zuen 2020-2023 urteetarako. Plan honen amaierarekin batera, nazioarteko kongresu bat antolatzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. "Languages lanean. Hizkuntza kudeaketaren erronkak jarduera ekonomikoan" izango da kongresuaren izena eta Bilbon egingo da 2024ko urtarrilaren 18an eta 19an.

Egun horietan zehar, profesional eta aditu euskaldunak eta munduko beste toki batzuetakoak elkartuko dira, esperientziak eta jakinduria konpartitzeko asmoz. Kongresuaren helburu nagusiak dira, besteak beste, lan munduan hizkuntza kudeaketaren garrantzia azaltzea, euskararen normalizazioan egindakoaren berri ematea eta mundu mailakoari begira jartzea, eremu sozioekonomikoan hizkuntza kudeaketa aurreratuan dauden erakundeen praktika onak zabaltzea eta etorkizuneko hizkuntza kudeaketa irudikatzea.

Horretarako, egun eta erdiko kongresua antolatu nahi da eta erronka da ahalik eta enpresa gehienetako arduradunak erakartzea: enpresaburuak, giza baliabideetakoak, sistemetakoak, hizkuntzen kudeaketakoak eta abar. Kongresuan 500 pertsona inguruk parte hartzea aurreikusten da. Hori guztia antolatzea, ahalbidetzea eta kudeatzea, eta horretarako behar diren euskarriak sortzea da kontratu honen xedea.

2. EGIN BEHARREKO LANEN EDUKIA ETA EZAUGARRIAK

Egin beharreko lanak kongresua antolatzeko, ahalbidetzeko eta kudeatzeko lanei dagozkienak dira eta horrek honako ataza hauek burutzea dakar:

1. lotea: Idazkaritza teknikoa.
Laguntzaileak, aurkezleak eta hizlariei laguntza. Koordinazio-lanak: solaskide bat HPSrekin koordinatzeko eta, beharrezkoa denean, gainontzeko loteetako esleipendunekin koordinatzeko. Hizlariekin harremanetan jartzeko eta aurkezpenak eskatzeko eta Euskalduna jauregiko teknikariei garaiz helarazteko, hizlariei oparia egiteko, elkarrizketak lotzeko… eus/gazt/eng/fr dakien norbait. Laguntzaileak, Euskaldunan eta Guggenheimen hizlariei eta parte hartzaileei laguntzeko, ahal dela, eleanitzak. gutxienez, euskaraz, gaztelaniaz eta, ahal bada, ingelesez ere jakin

beharko dute (ahozko gaitasuna). Mikrofonoak hurbiltzeko laguntzaileak geletan. Harrera egin eta akreditazioak entregatzeko laguntzaileak. Materiala sortzen dutenekin harremana, egun horretan materiala eskura izateko (akreditazioak prest izateko izena emandakoen zerrenda garaiz helarazi beharko zaie lehenago). Aurkezleak eta moderatzaileak ere proposatu beharko dira saio guztietarako. Oro har, genero biek presentzia orekatua izan beharko dute loteko lantalde guztietan.

- HPSrekin koordinazioa bermatzeko solaskide/arduradun bat izendatu beharko dute eta, beharrezkoa den guztietan, gainontzeko loteetako esleipendunekin ere koordinatu beharko da, dena prest eduki ahal izateko. Halaber, harremana izango du kongresuan parte hartuko duten hizlari eta entzuleekin, baita kongresua egingo den bi tokietako ordezkariekin ere. Pertsona horrek gutxienez euskaraz eta gaztelaniaz jakin behar du, herritarrekin ere harremana izango duelako.
    - HPSrekin koordinazio- eta jarraipen-bilerak egin beharko ditu hamabostean behin gutxienez. Mezu bidez eta telefonoz astero komunikazioa.
    - Gainontzeko loteen esleipendunekin ere harremanetan jarri beharko da, dena behar bezala eta epearen barruan egiten dela bermatzeko. Bermatu beharko ditu beste loteetan eskatutakoak prest daudela garaiz (eszenatokia eta gainontzeko hizkuntza paisaia, akreditazioaren momentuan banatu beharreko materiala, aldibereko itzulpen zerbitzuak, grabazioak eta argazkiak) eta horretarako jarraipen plana adostu beharko du HPSrekin eta gainontzeko esleipendunekin.
    - Kongresua egingo den bi tokietako ordezkariekin eta teknikariekin (Euskalduna jauregikoekin eta Guggenheim museokoekin) ere harremanetan egon beharko dute, dena behar bezala prestatzen dela bermatzeko. Urtarrilaren 18an Eusko Jaurlaritzak aurreikusi eta ordainduko dituen catering zerbitzuak garaiz zerbitzatzeko koordinazio-lanak ere egin beharko ditu enpresa esleipendunak.
- Kongresuaren zabalkunderako 2023an beharko diren euskarri digitalen diseinua egin beharko da, kongresuaren marka eta estilo-gidaren arabera: bannerrak, iragarkiak eta antzekoak.
- Kongresuak irauten duen bitartean pertsona laguntzaileak egongo dira, akreditazioak, aldibereko itzulpen zerbitzua erabiltzeko behar dena eta dokumentuak banatzeko, eta beharrezkoa izan daitekeen informazioa emateko parte hartzaileei. Genero biek presentzia orekatua izango dute. Ahal dela, ahoz hiru hizkuntzatan moldatzeko gai izan beharko dute (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez edo frantsesez). Komenigarria litzateke pertsona horiek zer hizkuntzatan hitz egin dezaketen ikusgai izatea, bertaratutakoek edo hizlariek laguntzarik behar izanez gero, jakiteko norekin zer hizkuntza erabil dezaketen.
- Arreta berezia jarri beharko da akreditazioak eta hasieran banatu beharreko materiala banatzeko, arin egin behar baita. Kontuan izan behar da aurreikusten dela 500 lagun inguru elkartzea.
- Bi aurkezle proposatu beharko dira ostegunerako, areto nagusirako. Gainontzeko aretoetarako ere moderatzaile/aurkezle bana beharko da. HPSrekin adostuko da zein den gai bakoitzerako egokiena, baina haiekin harremanak, koordinazioa eta ordainketa ere enpresa esleipendunaren esku egongo da.

- Kongresurako, 12 diadema-mikrofono, 6 eskuko mikrofono (gela bakoitzean bat gutxienez), teknikariak eta kontrol mahaiak ere jarri beharko dira.
- Aldibereko itzulpen zerbitzua eskainiko denez, bertaratzen diren guztiei eskainiko beharko zaizkie horretaz baliatzeko aukera eta baliabideak, akreditazioa egiteko unean. 2. Loteko arduradunarekin koordinatu beharko da horretarako, zerbitzu horretarako materialaren hornidura lote horri baitagokio.
- Hizlarien dietak: EAEtik kanpotik datozen hizlarien otorduen gastuak (bazkaria eta afaria kongresuak irauten duen bi egunetan). Nolanahi ere, hizlariek parte hartzeagatik kobratuko balute, Eusko Jaurlaritzaren esku geratuko litzateke hori. Parte hartzeagatik kobratuko ez dutenei, ordea, bertako produktuekin osatutako oparia egingo zaie, enpresa esleipendunaren kontura. Hizlariak, guztira, gehienez ere 50 izatea aurreikusten da. Bidaia-, hotel- eta gosari-gastuak ez dira hemen sartzen, Eusko Jaurlaritzak ordainduko baititu.
- Bereziki EAEtik kanpoko hizlariei kongresuak irauten duen bitartean eman beharreko laguntza. Aurreikusten da hizlari horiek gehienez ere 10 izatea eta egin beharreko lanak honako hauek izango dira:
    - Haien agenda kudeatzea, kongresuak irauten duen bitartean; bilerak eta elkarrizketak lotzea hedabideekin.
    - Laguntza, ekitaldiak irauten duen bitartean; eta beharrezkoa balitz itzulpena euskara/gaztelania/frantsesa/ingelesa. Atsedenaldietan ere itzulpena behar izanez gero (hamaiketakoak edo bazkariak irauten duten bitartean), beraiekin laguntzaile-interpretariren bat bermatu beharko da.
    - Kongresuan erabili beharreko aurkezpenak jasotzea eta Euskalduna Jauregiko teknikariekin kudeatzea.
- Kongresurako deialdia egitea, izen-ematearen jarraipena eta parte-hartzaileen akreditazioa kudeatzea eta kontrolatzea.
    - Izen-ematea online egin beharko da, kongresuaren web gunearen barruko izen-emate txantiloi baten bidez, eta Datuak Babesteko Legera eta Datuak Babesteko Eusko Jaurlaritzako ordezkariak definitutako tratamendu-jardueren erregistrora egokituta. Izena emandakoen zerrenda HPSk pasatuko dio koordinatzaileari beranduenik 7 egun lehenago, akreditazioen inprimaketa garaiz bermatu ahal izateko.
    - Banakako akreditazioak kongresuan sartzean banatuko dira. Asistentziaren kontrola eraman beharko da eta egun bakoitzean bertaratutakoen zerrenda HPSri pasatuko zaio.

- Kongresuaren ondoren laburpen memoria bat egin beharko du. Bertan jasoko dira, besteak beste, parte hartzaileei buruzko datu hauek: kopurua, jatorria, profila, sektorea, kargua, generoa eta hizkuntza(k).
- Kongresuaren ondoren soberan geratutako materiala ere HPSren esku jarriko du.

2. lotea: Aldibereko itzulpen zerbitzua

Aldibereko itzulpen zerbitzurako behar den guztia: interpretariak, tresnak, teknikariak, entzungailuak eta zerbitzu horretarako beharrezkoa izan daitekeen guztia. Euskalduna jauregian, urtarrilaren 18an, eta Guggenheim museoan, urtarrilaren 19an.

- HPSrekin koordinazioa bermatzeko solaskide/arduradun bat izendatu beharko dute eta, beharrezkoa den guztietan, 1. loteko esleipendunarekin ere koordinatu beharko da, dena prest eduki ahal izateko.
- Kongresuak irauten duen bitartean (urtarrilaren 18an eta 19an) aldi bereko itzulpen zerbitzua eskainiko da eu/es/en/fr hizkuntzen artean. Printzipioz, aurreikusitako saio guztietan 4 hizkuntzatan bermatu behar da aldibereko itzulpena. Urtarrilaren 18ko goizean eta 19an areto bakar bat erabiliko da. Urtarrilaren 18ko arratsaldean, berriz, lau aretotan bermatu beharko da zerbitzua, bi orduz, eta gero areto bakar batean beste ordubetez.
- Aldibereko itzulpen zerbitzuak uneoro hizkera inklusiboa bermatu beharko dute lau hizkuntzetan.
- Aldibereko itzulpen zerbitzua bermatzeko beharrezkoa den tresneria prest egon beharko da kongresuaren egunerako, tokian tokiko teknikariekin koordinatuta. Lehenengo loteko solaskidearekin koordinatu beharko dute akreditazioaren momentuan entzungailuak banatu ahal izateko bertaratzen diren pertsonei.
- Kongresura doazen pertsona guztiei aukera eman beharko zaie aldibereko itzulpen zerbitzua erabiltzeko, hitzaldiren bat ulertzen ez duten hizkuntzaren batean egiten bada ere. Horretarako, kongresuaren aurreko egunetan HPSri galdetuko diote zenbatek eman duten izena kongresuan, behar beste aparailu izateko. Aurreikusten da kongresuak 500 pertsona inguru elkartzea.

3. lotea: Hizkuntza paisaia

Kongresuaren berri emateko, 2023an hainbat toki estrategikotan egin daitekeen zabalkunderako euskarriak diseinatzea, sortzea, ekoiztea, jartzea eta kentzea. Kartoizko totemak edo antzeko euskarriak izan daitezke. Enpresak proposamena egingo du, baina HPSrekin adostuko du azkenean zer euskarri sortuko diren, noiz eta non jarriko diren. EAEko hiru lurraldeetan jarri beharko dira. Kongresuaren inguruko oinarrizko informazioa eman beharko dute eta kongresuaren markaeran araberakoak izan beharko dira.

Kongresua jasoko duten bi eraikinetako aretoen barruan eta kanpoan (5 areto Euskalduna jauregian eta 1 Guggenheim museoan) eta pasilloetan jarri beharreko guztia: roll upak, atrilak, hormairudiak eta horrelakoak. Kongresuaren markarekin, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskura jarriko dien erabilera gidaren arabera. Diseinua, sortzea, ekoiztea, muntatzea eta desmuntatzea.

- HPSrekin koordinazioa bermatzeko solaskide/arduradun bat izendatu beharko dute eta, beharrezkoa den guztietan, 1. loteko esleipendunarekin ere koordinatu beharko da, dena prest eduki ahal izateko.
- Honako hauek diseinatzea, sortzea, ekoiztea, muntatzea eta desmuntatzea, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak eskuratutako kongresuaren marka eta grafismoa errespetatuz:
    - Eszenografia, aretoen kustomizazioa, eszenatokiak, atrilak eta mahaiak. Euskalduna Jauregiak eta Guggenheim museoak ezarritako zehaztapenetara egokituta. Horien guztien diseinua eta ekoizpena.
    - Photocall guneak: bat, ostegunean, Euskalduna jauregian eta beste bat, ostiralean, Guggenheim museoan.

- Aretoen sarreretan jarri beharreko roll upak. Gehienez ere 10 izango dira.
- Kongresuan parte hartzen duten pertsonak aretora sartzen laguntzeko seinaleak jartzea Euskalduna jauregian.
- Sarrera-, aurkezpen- eta parte hartzaileen proiekzioak. Slide modelo bat diseinatuko da, partehartzaile guztien azal modura, eta irudi finko bat aurkezpenik ez dagoen uneetarako.
- HPSk eskatutako panelak ere sortu beharko dira, lau hizkuntzatan. Gehienez ere, 12 panel izango dira. Panel horietako testua HPSk eskuratuko dio enpresa esleipendunaren solaskideari eta diseinuan kongresuaren marka hartu beharko da kontuan.
- Gune ezberdinak sortu, gaika, esperientzia ezberdinen inguruko informazioa jaso ahal izateko (hormairudiak, proiekzioak, hiruorrikoak eta abar)

4. lotea: Banatzekoak sortzea

Akreditazioak (lanyardak), esku-programak, poltsak, koadernoak, boligrafoak, opariak sortzea eta ekoiztea. Kongresuaren markarekin, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskura jarriko dien erabilera gidaren arabera. 500 ale bakoitzetik. Harremanetan jarri behar dute akreditazioaz arduratuko direnekin (1. loteko solaskidearekin), izena eman dutenen zerrenda jaso, akreditazio pertsonalizatuak egin eta kongresuan banatu beharreko materiala entregatzea adosteko.

- Kongresuan parte hartuko duten pertsonei eman beharreko akreditazioak, esku-programak, poltsak, koadernoak, boligrafoak eta opari-objektuak (enpresa esleipendunak HPSrekin zehaztu eta adostu beharrekoa) diseinatzea, inprimatzea eta entregatzea.
  - Aurreikusten da kongresuan 500 lagun inguru bil daitezkeela. Bakoitzetik 500 ale gutxienez bermatu beharko dira.
  - Material guztia kongresua hasi baino ordu eta erdi lehenago Euskalduna jauregian bertan egon beharko da beranduenik, akreditazioaz arduratuko den enpresaren esku. Horretarako, 1. loteko koordinatzailearekin harremanetan egon beharko du enpresa esleipendunak eta adostu entrega nola egin.
  - Akreditazioak banakakoak izango dira eta kongresuan sartzean banatuko dira. Plastifikatuta-edo egon beharko dute eta erabiltzen diren bitartean ikusgai egotea bermatu behar da. Akreditazioak garaiz inprimatu ahal izateko, gutxienez astebete lehenago helaraziko dio izena emandakoen behin betiko zerrenda HPSk, zuzenean edo 1. loteko koordinatzailearen bidez.
  - Opari-objekturako pare bat proposamen egin beharko dira eskaintzan eta HPSren oniritzia jasotzen duen proposamena aukeratuko da, kongresura bertaratzen direnei emateko, kongresuaren markarekin pertsonalizatuta.
  - HPSrekin koordinazioa bermatzeko solaskide/arduradun bat izendatu beharko dute eta, beharrezkoa den guztietan, 1. loteko esleipendunarekin ere koordinatu beharko da, dena prest eduki ahal izateko.

5. lotea: Grabazioak, edizioa eta argazkiak

Grabazioak eta argazkiak egitea eta editatzea. Aurten, 2023an, hizlariei grabazio laburrak, ikus-entzunezkoak eta kongresuaren publizitaterako grabazioak, web gunean jartzeko; eta kongresuak irauten duen bitartean, 2024ko urtarrilaren 18an eta 19an, saio guztiak grabatu, editatu eta laburpenak egin, gehi zabalkunderako edizioak. Jatorrizko hizkuntzan. Eduki horiek guztiak kongresuaren web gunean jartzeko moduko formatuan jarri beharko ditu HPSren esku.

- HPSrekin koordinazioa bermatzeko solaskide/arduradun bat izendatu beharko dute eta, beharrezkoa den guztietan, 1. loteko esleipendunarekin ere koordinatu beharko da, dena prest eduki ahal izateko.
- Kongresuaren zabalkunderako bideo laburrak edo ikus-entzunezkoak grabatu beharko dira (2´ ingurukoak). HPSrekin adostuko da nori (zein erakunde edo pertsonari) egin behar zaion elkarrizketa edo bestelako formatuko grabazioa eta web gunerako prestatuko da. Grabazioei azpitituluak jarri beharko zaizkie gainontzeko hizkuntzetan, 4 hizkuntzetan (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa) bermatu ahal izateko.
    - Halaber, beste grabazio batzuk kongresuan zehar emititzeko ere grabatuko dira.
    - Horrelakoak, gehienez ere, 12 izango dira eta, oro har, 5 minutuko iraupena izango dute, edo 2 minutuko 25. Kongresurako landutako marka erabili beharko da bertan (hasieran eta amaieran). Bideoetan parte hartuko duten pertsonen izen-abizenak, enpresa eta kargua ere agertuko dira bertan. Horiek guztiak 2023a amaitu aurretik egin beharko dira eta HPSren esku jarri beharko dira, web gunean jartzeko eta dagokion zabalkundea egin ahal izateko.
    - Uneoro bermatuko da elkarrizketetan genero ikuspegia: hizkera inklusiboa erabiliz, galderak zainduz, esteriotipoetatik aldenduz…
- Kongresuko hitzaldi, mahai-inguru eta antzekoak grabatu egingo dira (2024an). Grabazio horiek guztiak ondoren editatu egin beharko dira, sare sozial eta bestelako plataforma digital eta kongresuko web gunearen bidez zabaltzeko. Kontratatutako lanek barne hartuko dituzte ikus-entzunezkoak edizio eta produkzio lanak. Emaitzak (editatutako grabazioak) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzaren esku jarri beharko dira beranduenik kongresua amaitu eta hilabeteko epean, zabalkunde egokia egin ahal izateko.
- Kongresuak irauten duen bitartean argazkiak atera beharko dira, bai aretoen barruan antolatutako hitzaldi eta abarretan, baita gune informaletan ere.
    - Hizkuntza kudeaketan aurrerapausoak egiteko konpromisoa hartutako hitzarmenkideekin taldeko argazkia ere atera beharko balitz, Lehendakaria eta gainontzeko agintariak ere bertan direla egingo litzateke. Horrelako argazki ofizialik egin beharko den ala ez aurrerago zehaztuko zaio enpresa esleipendunari. Beharrezkoa izanez gero, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin adostuko da argazki ofizial horiek noiz egin beharko diren, protokoloa errespetatuta, baina litekeena da goizeko lehenengo orduan egitea, Euskalduna jauregiaren barruan horretarako egokiena izan daitekeen tokian, sinatzaile kopurua kontuan izanda.
    - Argazki horietariko batzuk urtarrilaren 18ko eta 19ko goizetan bertan pasatu beharko zaizkio HPSri, hedabideetan zabalkundea egin ahal izateko.

3. ENPRESA ESLEIPENDUNEN BETEBEHARRAK

3.1. Lana lankidetzan

Lote bakoitzeko enpresa esleipenduna Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzarekin edo horrek izendatutako pertsonarekin batera arituko da lankidetzan, eta Zuzendaritza horren baimena beharko du erabakiak hartzeko garaian.

Halaber, lehen multzoko solaskidea eta koordinatzailea den pertsonak gainontzeko loteetako solaskideekin harremanetan egon beharko du, kongresurako dena epe barruan eta behar bezala prestatzen dela koordinatu eta bermatzeko.

3.2. Baimenak

Lote bakoitzeko enpresa esleipendunak bere enpresa-jarduera burutzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia administratibo guztiak izan beharko ditu. Horrezaz gain, kontratua burutzeko beste enpresa batzuk kontratatu behar baditu, enpresa esleipenduna izango da erantzule bakarra azpikontratatutako beste enpresa horien aurrean.

3.3. Euskararen erabilera

- Lehenengo lotean:
Ezinbestekoa izango da kongresua antolatzeko prozesuan, hizlarien eta gainontzeko parte-hartzaileen bertaratzea konfirmatzerakoan eta kongresu-egunetan bertan jendearekin harreman zuzenak izango dituzten enpresa esleipenduneko langileek (edo horiek azpikontratatutakoek) euskaraz ondo jakitea ahoz zein idatziz.

Horrezaz gain, enpresa esleipendunak euskararen kalitatea bermatu beharko du sortu beharreko testu guztietan (gonbidapenak, gidoia…). Adierazi beharko du nola bermatuko duen, noren bidez eta horren titulazioa euskarari dagokionez, edota antzekoetan daukan esperientzia adierazita.

- Bigarren lotean:
Aldibereko itzulpen zerbitzuak bermatu beharko du kongresuko hitzaldi guztiak euskaraz ere entzun ahal izatea. Interpretari profesionalek egin beharko dute lan hori. Halaber, hizkera inklusiboa bermatuko da beti.

- Hirugarren lotean:
Enpresa esleipendunak bermatu beharko du hizkuntza paisaia lau hizkuntzatan egotea (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez). Testu guztien kalitatea bermatu beharko du (zuzentasuna eta egokitasuna).

- Laugarren lotean:
HPSrekin adostutako materiala sortuko du, kongresurako landu den markaren eskuliburuaren arabera. Bestelako testurik idatziz prestatu behar izanez gero, HPSrekin kontrastatuko du eta bermatu beharko du testuen zuzentasuna eta egokitasuna.

- Bosgarren lotean:
Hobetsiko da argazkilaria eleanitza izatea (ahoz euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez edo frantsesez moldatzeko modukoa).
Grabazioak egin behar direnean ere, bermatu beharko da hizlari euskaldunekin harremanetan jarri behar denean, euskaraz hitz egin dezaketen teknikariak izatea, bereziki kongresuaren aurretik egin beharreko bideo-grabazioetarako.

3.4. Logoak eta markak

Edozein euskarritako diseinua dela-eta, Eusko Jaurlaritzaren logoaren eta “Languages lanean” markaren erabilera egokia bermatuko da.

3.5. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Kongresuak genero ikuspegia txertatu beharko du, horretarako honako neurriak hartu eta bermatuko ditu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Lortzeko eta Emakumeen Kontrako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoari jarraituz:

- Hizkuntzaren eta gainerako komunikazio-elementuen (irudiak barne) erabilera ez-sexista egin beharko da.
- Era berean, komunikazioan emakumeen parte-hartze aktiboa, sexu bien presentzia orekatua eta irudi anitza bermatu behar da edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik aparte. (1. lotea)

- Itzulpengintza-lanetan (idatziz zein aldibereko itzulpen zerbitzuan) arreta berezia jarriko da hizkuntza inklusiboaren erabileran. (1., 2. eta 5. loteak)

- Emakumeen eta gizonen arteko presentzia orekatua sustatuko da (orekatutzat, hain zuzen, sexu biek % 40ko ordezkaritza, gutxienez, dutenean joko da). Eszenatoki gainean egon eta hitz egin beharreko pertsonen arteko oreka bilatuko da, hizlari eta aurkezle edo moderatzaileen artean, emakumezkoak zein gizonezkoak egon daitezen. (1. lotea)

- Kongresuaren datuen bilketan sexuaren aldagaia jasoko da eta datu horien ustiaketan eta irakurketan genero ikuspegia txertatuko da. (1. lotea)

3.6. Irisgarritasuna

- Ahal dela, kongresuaren diseinu osoak irisgarritasuna bermatu beharko du dibertsitate funtzionala duten pertsonen beharrak kontuan harturik. (1. lotea)

4. LANEN EMAITZAK AURKEZTEKO MODUA

Kontratua amaitzerakoan, emaitzak aurkeztearekin batera, jarraian aipatutako enpresa esleipendunek gutxienez honako produktu hauek entregatu beharko dizkiote Hizkuntza

Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari, ele bietan eta, hala badagokio, norbanakoei dagozkien datu guztiak sexuaren arabera bereizita:

- Ekitaldirako sortu eta soberan geratutako materiala (bertaratutakoei banatzekoa). Material pertsonalizatu hori HPSri emango dio, hurrengo egunetan Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzara bidalita (1. lotea)
- Kongresuaren antolaketari eta asistentziari buruzko laburpen memoria. (1. lotea)
- Eszenografiako elementuen diseinua (mahaia, photocall-a, seinaleztapena…), pdf formatuan. (3. lotea)
- Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzarekin adostutako oparien diseinuak (koadernoak, poltsak, boligrafoak, botilak…), pdf formatuan. (4. lotea)
- Kongresuko saioen grabazioak eta hizlarien aurkezpen laburrak, ikus-entzunezko formatuan. (5. lotea)

Dokumentazio guztia gutxienez formatu elektronikoan aurkeztuko da, ekitaldirako sortu eta soberan geratutako materiala izan ezik.

Lehenengo loteko enpresa esleipendunak kongresua amaitu ondoren txostena egin eta HPSri bidali beharko dio. Txostenak euskaraz eta gaztelaniaz egon behar du. Datu guztiak, formatu erabilgarrian (excel, access, spss…) eman behar dira. Ekoizten diren txosten guztietan eta laburpen exekutiboetan kongresuaren eta HPSren logoak agertu behar du aldi oro.
Txostenean datuak sexuaren arabera bilduko dira eta tauletan eta grafikoetan, guztirakoez gain, sexuaren arabera banatutakoak ere adieraziko dira.

5. LANEN JARRAIPENA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari eta enpresa esleipendun bakoitzari dagokie lanaren jarraipen egokia egiteko pertsonala izendatzea. Jarraipena, lanaren hasieran eta Zuzendaritza honek eskatutakoaren arabera zehaztuko diren prozedurari eta egutegiari jarraituz egingo da.

6. LANTOKIA

Kontratuaren arabera bete beharreko lan guztiak enpresa esleipendunaren egoitzan eta Eusko Jaurlaritzak kongresurako aurreikusitako eraikinetan (Euskalduna Jauregia eta Guggenheim museoa) edo honek horretarako aurreikusitakoetan egingo dira. Azken horiek ez dira inoiz Eusko Jaurlaritzarenak izango.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan

MIREN EDURNE PEREZ DE SAN ROMAN RUIZ DE MUNAIN - 72716698J

Digitalki sinatuta norengandik: MIREN EDURNE PEREZ DE SAN ROMAN RUIZ DE MUNAIN - 72716698J
Data: 2023.06.26 08:19:51 +02'00'

Edurne Pérez de San Román Ruiz de Munain
Hizkuntza-plangintzaren arduraduna